


'Amona Lur' ikuskizunak gure planetaren historia kontatuko die Iruñeko eta inguruko neska-mutikoei

Planetariumeko ekoizpen taldeak osatu du ikuskizun berria, Paloma Zardoaiak zuzendurik

Lurra gure ama da. Lurrari gertatzen zaion guzia bere seme-alabei gertatuko zaie». Horrelaxe hasten da Iruñeko Planetariumeko ikuskizun berria. Batez ere, haurrei zuzendua dago, eta atzo inauguratu zuten.

Asier Azpilikueta / Iruñea

AMONA LUR proiektzioak, Planetariumak berak eginiko ikuskizuneko ekoizpenak, zeruari behatzera eta Lurra zaintzera zaletu nahi ditu haurrak. 30 minututan, oso hizkera errazean, Amona Lurrak kontatzen du noiz eta nola sortu zen bera, nola sortu ziren planetak, eta nola joan zen garatzen bizitza Lurrean. Emanaldiaren erdia bideoa da, eta beste erdia irudi solteek betetzen dute. «Eguberrietan amonak bere historia kontatzen ditu suaren inguruan». Ideia horretatik abiatzen da Amona Lur ikuskizuna. Kasu honetan amona Lurra da, gure planeta, eta bere historia kontatzen du, 4.600 urteko historia, erran du Planetariumeko



Amona Lur ikuskizuna Iruñeko Planetariumean emango dute. LUIS MARTORELL

zuzendari Javier Armentiak. «Edukia ikusgarria da oso, batez ere haurrendako, haiei zuzendua baitago proiektzioa, gure planetako kontu bitxi hauek lilura ditzaten».

Erran bezala, Amona Lur ikuskizuna Iruñeko Planetariumeko ekoizpen taldeak egin du, Paloma Zardoaiak zuzendurik. Proiektzioan arras ikusgarri eta ederrak

dira dinosauroen hiru dimentsio-ko animazioak. Haiek Bainbridge eta Cesar Cabañas artistek eginak dira. Ikuskizunean, Maite Juaniz eta Miguel Munarriz aktore nafarrek jarri dute ahotsa, eta ikuskizunaren iragarkia Luis Martollek egin da.

Hamar milioi pezeta gastatu ditu Iruñeko Planetariumak Amona Lur ekoizten. Gastuei aurre egite-

ko, Sinkal Telekomunikazioak enpresaren laguntza jaso du.

Goizeko 11:30etan, eguerdiko 12:15etan eta 13:00etan eta arratsaldeko 17:30etan eta 18.30etan izanen dira Amona Lur ikuskizunaren emanaldiak Planetariumean, Eguberriak bukatu arte. Ilargia izeneko ikuskizuna arratsaldeko 19:30etan emanen dute, egunero.

Amona Lurrak ez daki euskaraz

AMONA Lurrak 4.600 urte ditu eta bere baitan mundu osoko hizkuntzak ditu, baina Iruñeko haurrei erdara hutsean zuzenduko zaie, Planetariumekoak euskaraz mintzatzen irakatsi ez diotelako. Ulertezina kontuan hartuta Iruñeko haurren artean euskarak azken urteotan izan duen gorakada. Gainera Iruñekoa Euskal Herriko planetariumik izanik bazter guztietatik etortzen dira bisitariak. Bi errealitate horiek kontuan izan gabe, gaztelaniaz soilik egin du soilik Iruñeko Planetariumak haurrei zuzenduriko ikuskizun hau.

Dena dela, ikuskizunaren arduradunek ez zuten euskara-tzea erabat baztertu, atzo esan zuten. Horren harira, iragarri zuten Ilargia izeneko proiektzioa urtarilaren bukarerako euskaraturik egonen zela. Ilargia urrian inauguratu zela kontuan hartuz, noizko euskaratuko dute Amona Lurra? X

EGUBERRI HAUETAKO FILM GUZTIAK

S A D E

